




Ikasturte berri on!

Asteazkenean abiatuko dugu 21/22 ikasturtea, eta gogotsu gaude guztiok! COVID 19ak sorturiko osasun-egoerari aurten ere aurre egingo diogu Ikastolako komunitate osoaren lankidetzari esker. Aldi berean, kalitatezko hezkuntza emateko helburu irmoa dugu, euskara eta euskal kultura ardatz harturik, ikasleen garapen kompetentzial integreala helmuga dugularik eta familiekiko gertutasun osoz!



Etapaz etapako informazioa

Uztailean bidali genizuen ikasturte hasierarako informazio praktikoa, etapaz etapa. Gaurkoan, informazio hori osatu nahi dugu **zirkular** hauen bidez:



- [Haur Hezkuntza](#)
- [Lehen Hezkuntza](#)
- [Bigarren Hezkuntza](#)

Covid19ari aurre egiten

Ikastolako funtzionamenduan eragina izango duten xehetasun orokorrak Zurriola Ikastolaren webguneko COVID19 erlaitzean txertatuz joango gara, unean uneko informazioarekin, aurreko ikasturtean egin genuen moduan. Oraingoz, dokumentu hauek izango dituzue ikusgai:



- [Kontingentzia Plan Laburtua 21-22](#)
- [Ordutegiak 21-22](#)
- [Zirkulazioaren eta joan-etorrien planoak 21-22](#)
- [Nola jokatu etxean COVID19 kasuen eta sintomen aurrean 21-22](#)

Baimen-eskaerak - irailaren 6rako

Urtero bezala, zuen seme-alabei hainbat baimen emateko inprimakiak dituzue hemen. **Irailaren 6rako** betetzea ezinbestekoa izango da, lehen egunetik ikasleek behar dituzten baimenak izan ditzaten:



- [Baimen orokorrak](#) (Ikastolan lehendabiziko aldiz dauden ikasleek soilik betetzeko)
- [Osasun fitxak](#) (Ikastolan lehendabiziko aldiz dauden edo osasunean aldaketak izan dituztenek soilik bete eta lehen egunean ikastolara ekarri)
- [Ikaslea adin txikiko batek jasotzeko baimena](#) (LH1-2-3)
- [Ikastolatik bakarrik irteteko baimena](#) (LH3)
- [Eguerdian eskolaz kanpoko jardueretarako baimena](#) (LH4-5-6)
- [Bigarren jolas-orduan ateratzeko baimena](#) (DBH3-4)
- [Jolas-orduetan ateratzeko baimena](#) (BATX1-2)

Ejko ikasketa-bekak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2021/22 ikasturterako ikasketa beka diru laguntzen deia argitaratu berri du. Hauexek dituzue [zirkularra](#) eta [boletina](#).



Zerbitzuetako lan-poltsa

Ikasturte honetan ere, Ikastolako jangela, zaintza, garraio edota garbiketarekin loturiko lanetan lan egiteko lan-poltsa irekiko dugu. Kurtso hasierarako hainbat hutsune betetzeko daude dagoeneko. Interesik izanez gero, [galdetegi](#) hau bete.



OHARRAK / AGENDA:

- Jangela:** Irailako [menua](#).

